



AEB: BATASUNAREN EGOERAREN HITZALDIA

Iran, Irak eta Ipar Korea «gerra helburutzat» jo ditu George Bushen

Teheranek «harropuzkeria»
eta beren hegemonia hedatu
nahi izatea leporatu die AEBei

Ameriketako Estatu Batuetako presidente George Bushen Dick Cheney lehendakariordeak gidatzen dituen *belatzen* diskurtsoa bereganatu zuen atzo Batasunaren Egoeraren hitzaldian. Hala, Iran, Irak eta Ipar Korea «estatu gaiztoen» zerrendaburu jarri zituen, eta ohartarazi zuen «terrorismoaren aurkako gerran» ez dela egonean geratuko «gaiztoek» arma nuklearrak eskuratu arte. «Gaiztotzat» jotako herriek berehala erantzun zioten. /23-24

JUSTIZIA



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAKZI PRESS

Justizia Jauregi berria Donostian

Donostiako epaitegiak bilduko dituen eraikina inauguratu zuten atzo agintariek. Ospitale Militarren egoitza zaharra zegoen lekuan egin dute, Atotxan, eraikin zaharra berrituta eta zerbitzu berrietarako egokituta. Martxoan irekiko dute. Inaugurazioan, ETak iaz hil zuen Jose Maria Lidon epailea gogoan izan zuten agintariek. /6-7

MUSIKA

Kaxiano Ibarguren soinu jotzailea, 'Lizartzako Itsua', zendu da

69 urterekin hil zen, herenegun, minbiziz; gaur egingo diote azken agurra Lizartzan, 18:00etan /42-43



ELKARRIZKETA



XAVIER TRIAS

CiUko bozeramailea Espainiako Kongresuan

«Generalitatea estatua da, eta European ordezkaturia egon behar du» /12

GLOBALIZAZIOA

Munduko Foro Soziala gaur abiatuko da, Brasilgo Porto Alegren

50.000 partaide inguru izango dira globalizazioari bestelako alternatibak aurkezteko biltzarrean /19

FUTBOLA

Gaur Bernabeun Espainiako Kopako finalerako txartela lortzea besterik ez du buruan Athleticek

Real Madrilen aurkako gaurko partida oso zaila izango dela onartu arren, zuri-gorriak finalean izango direla uste du Jupp Heynckesek. /28-30

EZBEHARRA ZUBEROAN

70 urteko gizonezko bat hil da Alzain, laharrak erretzeko piztutako sutean

Mendia erretzen ari zen, beste lau lagunekin. Duela bi urte Ezterenzubini gertatu zen ezbeharra gogorarazi zuen atzokoak. /15